

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Foruzaingoaren gastua milioi bat euroan murriztuko du aparteko orduei eta arropari buruzko arautze berri batekin

Ofiziala ez den arropa erosteagatik dauden kalte-ordainen zenbatekoak % 30 eta % 67 artean jaitsi dira

Miércoles, 17 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bilkuran onartu duen foru-dekretuari esker, urtean 1,12 milioi euro aurreztuko du Foruzaingoaren aurrekontuan.

Alde batetik, arau berriak ezartzen du aparteko orduak atsedean denborarekin bakarrik konpentsatzeko betebeharra. Era horretan, Foruzaingotik Foru Administrazioari gainerako langileentzat adostutako politika orokorra aplikatzen zaio aurrekontuaren egonkortasunaren helburua betetzeko bultzatutako neurriak direla eta (13/2012 Foru Legea, langileria arloan premiazko neurriei buruzkoa). 2012an, Foruzaingotik 909.900 euro ordaindu zen kontzeptu horretan.

Bestetik, foru-dekretuak murriztu egiten du normala eta ohikoa ez den arropa erosteagatik dauden kalte-ordaina jasotzeko eskubidearen agente-kopurua (244 agente ziren 2012an eta 175 izango dira maiatzaren 1etik aurrera), bai eta zenbatekoak ere, % 30 eta % 67 artean murrizten direnak. 220.000 euro inguru aurreztuko dela kalkulatu da.

428 eta 900 euro artean

Zehazki, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute soilik honako unitate hauetara atxikitakoak: Agintarien Babesa, Joko eta Ikuskizuna, Ikerketa Kriminalaren Arloa eta lurraldetako komisarietako Polizia Judizialeko taldeak, ohiko izaerarekin, arauzko uniformeak janzten ez dutenak eta arropa bereziarekin zerbitzua bete behar dutenak, normala eta ohikoa ez den arroparekin.

Zenbatekoari dagokionez, 900 euro arte jasoko dute atxikitzearen lehen urtean (behin-behinekoa edo behin betikoa); 642 euro arte bigarrenena; eta 428 euro arte hirugarren urtean eta hurrengoetan. Gaur egun, diru-kopurua 1.284 eurokoa zen. Foru-dekretua aplikatzeko, kontuan hartuko da agenteak unitatean zenbat denbora doazen Polizian lanean jarraitzen duten bitartean.

Era osagarrian, beren komisarietako unitate buruaren aginduz, Herritarren Segurtasun arloari atxikitako unitateetako agenteek eta Babes eta Herritarren Arreta taldeko agenteek (kaleko jantziekin egindako zerbitzuak) uniformeak ez den arroparekin lana egin behar badute urtean

30 lanalditan baino gehiagotan (zerbitzuen data eta arrazoiak justifikatu beharko dituzte), 142 euroko kalte-ordaina jasoko dute urtean.

Agenteek fakturak urte naturala amaitu baino lehen eman beharko dituzte eta kalte-ordainak hurrengo urtean ordainduko dira, lehen bi hilabeteetan, Foruzaingo buruaren onespenearekin edo hark eskuordetzen duen pertsonaren onespenearekin. Foru-dekretua Foruzaingoaren mahai sektorialean eztabaidatu da.